

## XXXII. BIDEOALDIA

**Antzoki Zaharra 19:00**

**Ekainak 25**

**Larrotxene Kultur Etxeak**, Donostia Kulturako zentroak, **Bideoaldia** erabili izan du zine eta bideo ikastaroetako emaitza oparoak jendurrean ezagutarazteko. 32 urte dira bideo espezializazioa martxan jarri zela Intxaurren auzoko Larrotxene Kultur Etxean eta dagoeneko 500 produkzio inguru ekoitzi dira eta lagundutako koprodukzioak ehunka dira.

COVID-19ak eragindako krisiak ikasturteko ohiko martxa eta produkzioarengan ondorioak izan dituen arren, Larrotxene Bideoaren jardura ez da gelditu. Duela sei urte auzotik Bideoaldia hiriaren erdialdera eramateko egindako apustuari jarraipena emanez aurten **Antzoki Zaharrean** elkartuko gaitu 32. edizioak, ekainaren 25eko arratsaldeko 19:00etan.

**Emanaldi honetarako gonbidapenak Antzoki Zaharreko leihatilan jaso ahal dira jada ekainaren 18tik** (11:30-13:30 / 17:00-20:00). Pertsona bakoitzeko gehienez 4 gonbidapen eskuratu ahal izango dira.

Ekitaldiak edukiera mugatua izango du eta bertaratzen diren guztien segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren osasun-neurri guztiekin egingo da. Gainera, aurtengo edizioan aurkezle birtualak izango ditugu eta Larrotxeneko irakasleek bideo bitartez hartuko dute parte, batzuei ezinezkoa izango baitzaie bertaratzea.

Bertan, Larrotxenen ikasturtean zehar landu diren hainbat generotako produkzioen aukeraketa ikusteko parada izango dugu:

**Michel Gaztambideren Gidoigintza Aurreratua** ikastaroan iaz landutako hiru gidoien filmaketak aurten burutu dira eta ikusgai izango ditugu XXXII. Bideoaldian. *LIMPIEZA AUTOMÁTICA*, *¿POR QUÉ TENGO QUE DORMIR ASÍ?* eta *LA FUSIÓN* hain zuzen ere.

Tamalez, **Andoni de Carlosek** irakasten duen **Gidoigintza Hastapena** ikastaroan *RITA* izeneko gidoia landu zuten baina alarma egoera eta konfinamenduaren ondorioz ezin izan zen gauzatu. Ikasturte honetako aparteko inguruabarrak direla eta, osatu ezin izan den lan bakarra izan da.

**Pablo Maloren** ikasleek *ZORIONAK AMONA!* zuzendu dute **Zine zuzendaritza** ikastaroaren barruan.

**Ander Iriartek Fikzio Zuzendaritza** ikastaroa eskaini du aurten eta ikastaro horretan jardundako ikasleek zuzendutako *ANIMAL LOVERS* film laburra ikusgai izango dugu.

Bestalde, **Oskar Tejedorrek** gidatutako **Dokumentalgintza** ikastaroan landutako *SANTI 17* eta *EMPATÍA* film laburrak ikusteko aukera izango dugu.

## Elkarlanak

Elkarlanean jarraitzen dugu hiriko hainbat erakunde eta eragilerekin. Aurtengo kolaboratzaile nagusia **Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia** izan da eta elkarlanerako sinatutako hitzarmena erabat onuragarria da bi aldeentzat. Larrotxeneko ikasleek Musikenen egiten diren masterrak sustatzeko hainbat ikus-entzunezko pieza egin dituzte eta Musikeneko ikasleek Larrotxenen egindako 3 film laburren soinu bandetan egin dute lan.

Era berean, Larrotxeneko ikasle talde bat *Nitik harago, baietz 11 Intxaurrondon!* ekimenarekin elkarlanean aritu da, 2019ko Euskaraldiaren esperientzia berrian egindako jarduerak bideoan dokumentatuz.

## Oihua! Egitasmoa

**María Fontán** “Zerua hautsi zen gaua” film labur proiektuarekin izan da *Oihua!* sorkuntza lehiaketaren irabazlea. *Oihua! Donostia Kulturak, San Sebastián-Gipuzkoa Film Commissionek eta Gazteak* bultzatutako ekimena da, euskaraz filmatzen den fantasiako generoa indartzeko helburuarekin sortua.

Martxotik aurrera gidoi irabazlearen aurre-ekoizpena eta ekoizpena landu dira, Larrotxene Bideoren tutoretzapean eta **Paul Urkijo** zuzendariaren aholkularitzarekin. Larrotxene bideoko ikasle eta irakasleek, eta ikus-entzunezko hainbat gazte profesionalak osatu dute lantaldea, guztira 25 pertsona parte hartuz elkarlan prozesuan. Film laburra ekainaren bukaeran filmatuko da; zehazki, ekainaren 29tik uztailaren 1era. Oiartzunen egingo da filmatzea eta postprodukzioa udan zehar burutuko da.

## #DKEtxean eta #DKON!

Konfinamendua dela eta, Larrotxene Bideok eduki digitalak landu ditu. Ikasturte honetan, Larrotxene Bideok **Kontakizun Digitalen Kultura** izeneko Medialab egitasmoa abian jarri du, eduki digitalen sormena sustatzeko helburuarekin. Laborategiaren testuinguruan egindako hausnarketaren fruitu izan dira sortutako edukiak:

**Adobe After Effects tutorialak:** Interfazetik hasita, komunitateari software hau nola erabili erakutsi zaio. Ikastaro hau aurretik prestatutako bideo-piezetan eta ariketak zuzentzeko eta ikusleriaren galderei erantzunak emateko zuzeneko emanaldietan oinarritu da.

**Transmediazine.** Narrazio digitalekin zerikusia duten gaien inguruko mikro-magazina. Bideo-jokoak, ARG-ak, ziberliteratura, murgiltze antzerkia eta zinema interaktiboa izan dira jorratu diren gaiak, adibide konkretu eta berritzaileetan oinarrituz.

**Larroetxean zuzenekoak.** Formatu honek Larrotxene Bideok sustatuko film laburrak bultzatzea eta zentroaren inguruko komunitatea mantendu eta zabaltzea izan ditu helburu. Twitch plataforma erabili da Larrotxeneko hainbat film labur zuzenean emateko eta emanaldi bakoitzaren ondoren, egileekin mahai inguru laburra egin da.

Zuzeneko emanaldi hauen barruan **Michel Gaztambideren** mintegiak antolatu dira “*Otra manera de analizar un cortometraje*” izenburupean.

## 2019-2020

Larrotxene Bideoren materiala mailegatzeko zerbitzuak markak hausten jarraitzen du. 2019-2020 ikasturtean **74** aldiz laga da materiala mota guztietako ikus-entzunezko ekoizpenak laguntzeko, bai ikastaroetatik datozenak, bai ekimen partikularretatik datozenak.

Larrotxenek **etorkizunari** baikor begiratzen dio. Urtez urte, Larrotxene Bideok hirian eta ikus-entzunezkoen munduan duen **erreferentzia izaerak** sendo jarraitzen du **sorkuntza, erakusketa** eta **prestakuntza** ardatz nagusi dituelarik.